

BOOBIZI

Merkatuen segmentazioa

Gure enpresaren bezero nagusiak bularreko minbizia jasan izan duten emakumeak dira. Bereziki, neurrira egindako bularretakoak erosi ezin dituzten emakumeentzat, emakume guztien erosahalmena berdina ez delako. Emakume hauek hainbat zailtasunei aurre egin izan behar diete bere beharrak asetzeko, produktu bereziak behar dituztelako. Hori dela eta, gure enpresak giza-talde honi aukera merkeago bat eskainiko die.

Adin guztietako emakumeentzat gure produktuak saldu nahi dugunez, diseinu ezberdinak egingo ditugu adinaren arabera. Esate baterako, gazteen artean dauden modak kontuan hartuta sasoiko kolekzio ezberdinak ekoiztuko ditugu. Gauza berdina egingo genuke adin nagusien artean dauden tendentziekin. Halaber, gure enpresak dituen sare sozialeko kontuetan inkestak egingo genituzke bularretakoaren diseinua zehazteko (kolorea, kopa tamaina, lehengaien ukipena...). Horrela, bezeroek aukera izango dute jantziko duten produktua euren egiteko, haien interesak eta gustuak kontuan hartzen ditugula jakinez.

Etorkizun batean hasiz gero, beste merkatuko segmentu batzuetara irekitzea gustatuko litzaiguke. Ondo legoke emakume guztiei saldu ahal izatea, ez soilik bularreko minbizia dutenei, bularreteakoak premiazko ondasun bat direlakoan gaudelako eta funtsezkoa baita eme denentzat produktu eskuragarria ekoiztea. Gainera, modu horretan kapital kantitate handiagoa lortuko genuke bularreko minbiziaren ikerketan inbertitzeko. Hala eta guztiz ere, gure lehentasuna minbizia duten emakumeak izango dira beti, hauen ongizatea bermatzearen alde borrokatzen baitugu.